

Azkeneko Manifestua



Asteburu honetan, berriz egin dugu historia, liburu ofizialetan jasotzen ez den Historia hori. Eta lortu dugu Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako aktibista eta boluntario guztioi esker; duela 80 urte Gernika, eta beste 110 herri, gerra bidegabe, anker eta jasangaitz batean bonbardatu zituztela gogoratzeko mobilizatu garenok esker.

Ez dugu Gernika gehiagorik gura, eta EZ DUGU AHAZTEN gure herriak ondotxo dakiela zer diren beharturiko emigrazioa eta deserria. Badakiela duela 80 urteko exodoak eragin zuela kolpe militar faxista, zeinak jendarte osoaren askatasun-, demokrazia- eta justizia-ametsak txikitu zituen; hori guztia ezin da ahanzturan geratu.

Beraz, hementxe gaude, gaur, esateko EZ DITUGULA ARRAZISMOA ETA XENOFOBIA ONARTUKO, eta adierazteko, aldi berean, HARTU EGIN NAHI DITUGULA gure herri eta auzoetara etortzen ari diren pertsonak. Jakizue: ONGI ETORRIAK ZARETE!

Proiektu neoliberal, patriarkal, militarizatu, baztertzaile eta erregresiboa defendatzen dutenen aurrean, guk diogu ez dugula nahi GERRA GEHIAGORIK, EZ ETA MUGA EDOTA HESIRIK ERE. Guk diogu harrera egin nahi dugula, eta ez dugula gura Europa Gotorlekua: atzerritarrak barneratzeko zentroekin, kapitalari eta baliabide naturalen espolioari lurreratzeke pistak jartzen dizkiena, eta, aldi berean, babes-bila dabiltzan pertsonen kontinente honetan sartzea eragozten diena; berak nonahi sortzen dituen gatazketatik ihesi dabiltzan pertsonen tratu txarra ematen diena, eta halabeharrendaren mende abandonatzen dituen; inongo lotsarik gabe nekropolitika egikaritzen duena, bere kapitalismo basatiaren eredurako jada funtzionalak ez direnak hiltzen uzten dituen. Gure mespretxurik handiena basakeria honen arduradun diren erakunde eta gobernu europarrentzat!

Gura dugu Euskal Herria harrera-lurralde izatea, eta, horretarako, hauexek dira gure **eskakizunak**:

- Bakea, iraunkortasuna eta bizitzaren zaintza, gizarte- eta klima-justizia, eta gatazken konponketa erdigunean jartzea; harreman justuak izatea Munduko Hegoaldeko herrieekin eta bertako herritarrekin.
- Gerrak bukatzea, hala nola egiturazko indarkeria, arma-enpresetarako diru-laguntzak eta abalak, armen merkataritza eta gerraren negoziua bera.
- Enpresa transnasionalek oinarriko eskubideak sistematikoki urratzeari uztea, eta tokiko baliabideak eta giza eskubideak errespetatuko dituzten merkataritza- eta ekonomia-politikak bermatzea.
- Espainiako Kanpo Ekintza Ministerioko funtsak ez baliatzea kontzertinak ezartzeko eta mugak militarizatzeko, baizik eta nazioarteko elkartasuna eta garapenerako lankidetzak bultzatzeko.
- Nazioarteko itunak betetzea, eta migrazioaren, asiloaren eta babesaren arloko erkidego- eta estatu-mailako arauak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidera egokitzea.
- Ibilbide legal eta seguruak irekitzea, hirugarren herrialdeekin itzultzeko eta berriz onartzeko egindako akordioak etetea, eta mugak kanpora ateratzeari uztea ere.

- Emakume eta LGTBIQ+ pertsonen harrera berdintasunean bermatzea, eta indarkeria heteropatriarkalaren aurkako neurriak hartzea.
- Atzerritarrek Barneratzeko Zentroak ixtea, atzerritar pobre, migratzaile eta errefuxiatuentzako kartzela hutsak besterik ez dira eta.

Udalei eskaera egiten diegu proposamen hauek abia ditzaten

- 1.- Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzea, beren oinarrizko beharrak artatuko direla bermatuta: ostatua, mantenua, osasuna, hezkuntza, arreta psikosoziala...
- 2.- Erroldatzeko eskubide historikoa egikaritzea, estatuko araudiaren eragozpenak gaindituta eta etxerik gabe daudenak erroldatuta.
- 3.- “Udal nortasun agiri” bat sustatzea migratzaile eta errefuxiatuentzat, udal-zerbitzuak balia ditzaten eta udal-eremuan legearen barruan bizi ahal izateko.
- 4.- Beharrezko baliabideak eskaintzea gizarteratzeko eta arreta zein prestakuntza jasotzeko ibilbide integralak sortzeko.
- 5.- Beren lurraldea industria militarrik gabea izendatzea, eta ekonomia sozial eta solidarioko proposamenak sustatzea.
- 6.- Babes instituzionala ematea migratzaile eta errefuxiatuei, paperak izan ala ez, modu solidarioan harrera-sareak eta beren prozesua legeztatzekeo neurriak eskainiko dizkieten pertsona, elkarte edo mugimendu guztiei.

Euskal eta nafar gobernuei ausardia eskatzen diegu, neurri horiek aplikatzeko orduan, eta berehala gai ditzaten ibilbide humanitarioak migratzaile eta errefuxiatuak ez daitezen egon pertsonen trafikoan diharduten mafia-sareen esku edo ez daitezen bidean hil. Muturreko premia dagoenean, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duen legeria ezin da aitzakia izan.

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataforman, asmo irmoa dugu kaleetan jarraitzeko eta, Giza Eskubideak bete daitezen, lege bidegabeak salatzekeo eta urratzekeo.

Izan ere, egoera honek pertsona guztion esku-hartzea eskatzen du, guk nahi edo nahi ez ankerkeria honen garaian bizi garelako eta, aurre egiteko, gure artean antolatzekeo betebeharra dugulako, gizarte-antolaketa dagoenean arrazismoak, xenofobiak, matxismoak eta gerrak ez baitute inolako lekurik.

Horretarako guztirako, hurrengo hitzordua bihar dugu, Maiatzaren Lehenean. Sindikatuek egindako deialdiekin bat egingo dugu, ozen asko oihukatzeko bertokoa eta atzerritarra langileria bera dela. Gero, hurrengo hitzordu handia uztailaren 14an izango da: Estatu osoko autobusak Melillara abiatuko dira Espainiako gobernuaren migrazio-politikak eta Hegoaldeko Mugan egunero gertatzen den Giza Eskubideen urraketa sistematikoa salatzekeo. Zain izango gaituzue!

Ongi etorri Errefuxiatuak Plataforma, 2017ko Apirilak 30